

ORDIZIA **TRANS**formatzen

LGTBI udal diagnostikoa



AURKIBIDEA

Izenburua:
Ordizia eraikiz

Editorea:
Ordiziako Udala

Egileak:
Sudergintza KOOP. ELK. TXIKIA eta
Hiruki Larroxa KOOP. ELK. TXIKIA

Zuriñe Rodríguez Lara
Ibai Fresnedo
Noa Goikoetxea

Maiatzak 2023

Alkatearen eskutitza	5
Prologoa	7
Marko teorikoa	8
Identitate esentzialaren haustura	8
Heterosexualitatea erregimen politikoa	9
LGTBI siglak: fikzio bat	10
Zer da sigla bakoitza?	11
Komunitatea/Kolektiboa/Mugimendua	11
Zergatik herrietara begira?	13
Herriaren estigma	13
Herriaren berezitasunak: sexilioa	13
Munizipalismo ez heterosexuala	15
Ordizia eta LGTB errealitatea	16
Ondorio nagusiak	18
Gure Ordizia, gure idiosinkrasia	20
Herriko festak eta aisialdi guneak	20
Espazio publikoa, espazio maskulinoa	21
Koadrila familia da	23
Kapitalidade faltsua	23
Armairuaren inertzia vr. Erreferenteak	24
Aurpegia erakutsi gabe eta herritik kanpo	24
Armairutik ezin atera	24
Armairuaren heldutasuna	25
Erreferenteak: kanpoan eta negatiboak	26
Gutarrak, herrikoak	26
Misogina nonahi	28
Fobiak eta erasoak	28
Hitzak eta kontrol soziala	28
Gizentasuna arerio. Lesbianek zertarako?	29
Eskola: gune segurua?	30
Errugbia: oasia	31
Sexilioa eta erreparazioa	32
Banoa. Buelatzeko?	32
Sareak eta harrera	34
Sareak bai, artikulazioa ere bai	34
Proposamenak	36
Bibliografia	37

ALKATEAREN ESKUTITZA



Esku artean duzun Ordiziako LGTBI diagnostiko hau 2020an hartutako konpromiso baten betekizuna da, 2020 Harrotasun Egunaren adierazpenaren harira, Ordiziako udalbatzan aho batez konpromisoa hartu genuelako LGTBI komunitatearen egoera erreal jasotzen duen diagnostikoa burutzeko, perspektiba historikotik oinarrituta, herriko bizipenak jasotzeko. Zorionez, hau da eman dugun lehen urrats horren emaitza.

Alabaina, konpromiso politikoetatik harago, diagnostiko honek, Ordiziak bere biztanle batzuekiko duen zorra kitatzeko lehen urratsa ere izan nahi du. Izan ere, zisheteroarautik at kokatzen garenontzat, Ordizia ez delako izan, eta oraindik ere, ez delako, inolaz ere abegikorra. Kontzienteki, eta askotan inkontzienteki, heteropatriarkatuaren zirimiriak gure herriaren txoko guztiak zipriztintzen dituelako, eta oso zaila da, guztiontzat aurrez ezarrita dagoen ibilbide horretatik aldentzea.

Zailtasun hori areagotzen da, benetan nor garenaren kontzientzia nerabezaroan hartzen dugunean, non eta inguratzen gaituen guztia kontra agertzen zaigunean. Horrela, beste inorekin harremanik ez duen itsaso zabalean erabat isolatutako irla baten moduan, barnera begira jartzea baino ez zaigu geratzen, eta indar handia behar da aurrera egiteko. Hainbeste, azkenean ia beti bi aukera baino ez ditugula izaten: armairua edo sexilioa. Hemen geratu, benetan zarena ezkutatu eta antzezlan batean bizitzeko. Edota kanpora alde egin, benetan zaren bezala bizitzeko aukera emango dizun errealitate berri bat eraikitzeko.

Diagnostiko honek, errealitate horiek plazara ekarri nahi ditu, eta Ordizia anitza aldarrikatzen dugun bakoitzean, LGTBI aniztasuna ere aintzat hartu behar dugula gogorarazi. Baina beste helburu bat ere lortu nahi luke, ordiziar bakoitzari ikusaraztea sentitzen duen bezala bizitzeko eskubidea daukala. Ez dagoela bakarrik, eta ez daukala itsasoan galdurik dagoen irla bakartia izan beharrik. Badagoela, Ordizian ere, zisheteropatriarkatuaren arauetatik kanpo bizitzea erabaki duen komunitate bat, herrian ezkutetzea edo herritik alde egitea erabaki ez duena, eta elkar ezagutu, saretu eta laguntzeko premia izugarria duena.

Bukatzeke, zor historiko bat ere badauka Ordiziak, geure herriko LGTBI komunitatearen historiarekiko. Memoriarik ez dago, transmisiorik ematen ez baldin bada, eta tamalez gurean ez da belaunaldien arteko harremanik izan. Horregatik, ahaztu zaigu, izan zirela Ordizian orain baino askatasun askoz handiagoz bizitzeko taberna edo guneak, lagun taldeak. Historiak ordea, ez du beti hobera egiten, tamalez, eta horregatik memoria kolektibo hori berreskuratzea ezinbestekoa da aurrera egiteko.

Esan bezala, LGTBI diagnostiko hau lehen urratsa baino ez da, eta hemendik aurrera, diagnostikoan azaleratutako gaitzak konpontzeko ekintzak proposatu eta burutzeko dagokigu, eta LGTBI komunitatearen memoria historikoa berreskuratzea. Ordizia, libreki benetan zaren modukoa izateko herri anitza eta askea izatea amesten dugulako.

PROLOGOA



Esku artean duzun dokumentua Ordiziako LGTBI errealitateari buruzko diagnostikoa da, Ordiziako Udalak bultzatua eta Sudergintzak eta Hiruki Larroxak koordinatua zein burutua. Hurrengo orrietan Ordiziako LGTBI pertsonen, herrian bizi direnen eta bertatik ihes egin zutenen, egoeraren argazkia aurki dezakezue. Guztiak ordezkatzeko asmorik gabe, ariketa hau ahalik eta anitzena izaten saiatu gara. Badakigu, ordea, oraindik pertsona askorekin hitz egitea falta zaigula.

Dokumentu honetan fobia eta desio asko aurkituko dituzue. Erresistitzeko erak, plazera eta indarkeria nonahi. Bertan, udalari jarri dizkiogun etxeko lanak ere topatuko dituzu; izan ere, erronka, orain, Ordizia LGTBI pertsonentzat bizigarria ez ezik, arau heterosexualetik kanpo bizitzak eraikitzen dituztenentzat desiragarria izatea da.

Ordiziako ahotsek hitz egiten digute, baina izenik eta abizenik gabe egiten dute, beren anonimotasuna eta segurtasuna bermatzeko helburuarekin. Hala ere, disidente sexuak izen propioa dute. Gaur egun ezkutuan hitz egiten jarraitzeak gogoe-ta eginarazi behar digu.

Diagnostiko hau zuentzat denontzat da.

Bollera, trans, mari-mutil, maritxu, ez bitar, trabesti...Zuek zarete Ordizia!

Hortaz, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen esku-zabaltasunagatik eta zuen bizitzetan egin duzuen apustuagatik.

Halere, diagnostiko hau ere Ordizian bizi diren pertsona heterosexualentzat da, haien portaerei, begiradei eta pultsioei buruz hausnar dezaten eskatu nahi diegu. Izan ere, heterosexualitatea, Monique Wittigek esan zuen bezala, erregimen politiko bat da, eta erregimenek diskriminazioa eta menderakuntza sortzen dute. Bertan eratzen den disidentzia, ordea, erresistentzia, komunitatea eta plazera da.

Guk, zalantzarik gabe, desioz beteriko eta fobiarik gabeko Ordizia nahiago dugu.

Ordizia eraikiz, aurrera!

MARKO TEORIKOA

Identitate esentzialaren haustura

Identitatea norbanako eta giza-taldeek dituzten ezaugarri dagokio, deskribatzeko modu bat bezala erabiltzen dugu edo ezaugarri gisa. Gure izena edo izana osatzen du, hau da, izaera determinatzen duen elementuez osa daiteke identitatea. **Baina identitateak gure gizartean egonkortasuna eta, batez ere, gizarte onarpena behar du.** Ez da erreal ez materiala, fikzio politiko bat da.

Gizarte zientzien ikuspegitik, izaki sozialak gare-laren kontzientzia hartzen dugu eta, beraz, identitatea bereganatzen edo ikasten dugu. Hau da, identitatea gure ezaugarri bat -edo gehiago- da/ dira izaki sozialak garelako. Horregatik, sozializazioaren bidez identitateak sortuko dira eta, noski, hau gauzatzeko kondizio jakin batzuk bermatuak egon behar dute (materialak, sinbolikoak, ekonomikoak, eta abar.).

Identitateak sozialak eta anitzak dira baina ez ditugu era kontzientean (beti) aukeratzen, arestian aipatu bezala, sozializazioaren prozesuan ematen dira. Sozializazioa ulertuz gure bizitza osoan zehar beste gizakiekin sortzen dugun elkarreragin eta elkarrekintza bezala. **Identitatea sozializazioaren bitartez garatzen denez, aldakorra eta kontingentea izan daiteke, baita kontzien-**

tea edo inkontzientea (Azpiazu, 2020). da.

Marko teoriko honetan, gizarteak pertsonak identitateen arabera sailkatzeko duen eredia kritikatzeko dugu, identitatea modu esentzialista batean artikulatzearen kontrakoak garelako, hau da, bizitzaren lege eta ordena naturalean eraikitzen dela. Gure apustua da, identitatea kulturalki eta sozialki sortua dela. Alegia, identitatea politikoa, aldakorra eta poliedrikoa da.

Identitatearen ideia esentzialistarekin hautsi nahi dugu eta norbera izendatzeko erabiltzen diren kategoriak (gizon, emakume,...) eraikiak direla esatera gatoz. Botere harreman jakin batzuen ondorioz eraiki diren kategoriak edo izendapenak direlako.

Baina zer esan nahi da izendapen edo kategoria bat esentziala dela esatearekin? Ideia honetan gehiago sakonduz, esentzialisismoak esentzia erreal bat dagoela planteatzen du, berezkoa, sortua dena (ez gizakiak sortua), adibidez, jaiotzeko momentuan sortzen den ezaugarri bat pertsonaren izaeraren parte bihurtu daitekeena (biologiaren elementuei erreparatu). Ildo honetatik, berezko ezaugarri hori esentziala bihurtuko da, gizartearekin harremana sortu baino lehen erai-

ki delako, eta orduan egituraketa sozialak moldatuko du harekin harremanean sartzen denean (Coll-planas, 2015) (Foucault, 1976) eta Burr, 1996).

Gure lan ildoari tiraka, logika honen bidez falazia bat sortzen da: normala heterosexuala eta zis-a da. Hortik kanpo dagoen guztia anormala da, itxusia, zikina, ezohikoa eta, are gehiago, deuseztatu beharreko arerioa da. Identitatea esentzia gisa ulertzeari uztea betebeharr demokratikoa da, gizarte guztiek lortu beharko luketena aurrera egin ahal izateko.

Heterosexualitatea erregimen politiko

Zentzu honetan, gizartearen parte izateak esan nahi du, gizarteak berak arautzen dituen kategoriekin nork bere burua identifikatzea eta era berean gizarteak gu identifikatzea. Horregatik pentsaezina, edo hobe esanda, imajinaezina dirudi genero identifikaziorik ez duen norbait. Pertsona intersexualak edo ez bitarrak bizi dituzten oztupoak bezala, edo gizon eta emakumeen rola erreproduzitzen ez dituzten LGTBI pertsonak dituzten eragozpenek erakusten duten bezala (Coll-planas, 2015). Existitzen dira, nola ez, baina zigortuak dira, munstroalizatuak dira, ezkutuak dira, gaizki ikusiak daude. Alegia, ez normaltasun horretan kokatuko ditugu, normaltasuna ordena naturala delako. Beraz, dinamika estruktural honen pertsona gay, lesbiana, transexual, bisexual eta intersexualei eragiten die besteak beste, normala den horrez kanpo kokatuz, hau da, ezarria dagoen ordena naturaletik kanpo.

Ordena naturala etengabe berrekoizten ari da, eta hura ez hausteko eta inoiz arriskuan ez jartzeko beharrezko mekanismoak garatuko ditu. Baina, nola? Indarkeriaren bidez (fisikoa, materiala eta sinbolikoa) eta ordena natural hori masan birproduzitzen. Gizon eta emakume maskulinoak eta femeninoak erreproduzitzea eta horiek familia nuklearretan ugaltzea, ordena natural hori mantentzeko eta handitzeko mekanismorik onena da.

Zentsu honetan, Monique Wittigek heterosexualitatea erregimen politiko gisa izendatu zuen 1992an. Heterosexualitateak bakoitzak daukan praktika sexualetatik askoz haratago doala defendatzen du eta, gainera, ordena naturala erreproduzitzeko mekanismo/erregimen gisa funtzionatzen duela modu oso eraginkorren. Laburbilduz, gizonak emakumeekin egon behar dira eta emakumeak gizonekin. Hortik kanpo dagoen guztia anomalia bat izateaz gain, generoak definitu diren kategoria propioak haustera behartzen du. Horregatik, lesbianak ez direla emakumeak esan zuen, emakume izatea heterosexualitateetik eraikitzen delako.

Lan honetan, heterosexualitatea erregimen politiko gisa ere ulertuko dugu, praktika sexual intimoak gainditu eta bizitza arautzen duen pentsamendu-kategoria gisa agertzen zaigulako.

LGTBI siglak: fikzio bat ¹

Lesbiana , Gay, Trans, Bisexualak eta Intersexualak oso talde ezberdinak dira baina gauza berak lotzen ditu: haiengan etengabe erreproduzitzen den LGTBIfobia, hau da, genero eta sexualitatearen eredu heteroarautu nagusietatik at egotearen zigorra, bazterketa eta indarkeria; honakoa bizitzako alor sozial, kultural, politiko eta ekonomiko guztietan islatzen delarik. Aldi berean, komunitatea izan daiteke ere bai, taldea, erresistentziarako abagunea.

LGTBI pertsonak dituzten nahiak, helburuak eta estrategiak ere oso ezberdinak dira. Hori bai, berriz ere, badute zerbait komunean: arauz kanpoko kokapena eta etengabe epaitzen dituen kanpo-begirada. Ez du zerikusirik handirik erdi klaseko marikoi zuri batek bizi duenak edo emakume bisexual beltz prostituta batek bizi duenak. A priori, kostatuko litzaiguke komunitate berean ulertzea, eta askotan, agenda eta helburu ezberdinak eta kontrajarriak izango dituzte. Hala ere, talde berekoak izan daitezke, LGTBI komunitatekoak, erregimen heterosexualak zeharkatuko dituenak. Biak zeharkatzen dituen begirada hori da, oso modu ezberdinean bada ere, LGTBI deituko diogun fikzio politiko baten existentzia baieztatzen diguna. Etengabeko erreprodukzio honek, patriarkatuak ezarritako sistema heterosexualan dauka oinarria, eta heterosexualitatea zilegitzat jotzera eramaten gaitu, baita bere eredu sexuala onartzera ere.

Ordea, interseksionalitateak, zapalkuntza eta menderatze desberdinak elkarrizketan jartzeko balio digun tresnak, aukera emango digu subjektu hain desberdin horiek gizarte-hierarkia berean ez kokatzeko. **Horregatik, interseksionalitatea da guretzat ezinbesteko lanabesa. Horregatik guztiagatik, LGTBI kontzeptua konglomeratu politiko bat bezala ulertzen dugu, lagungarria zaigun fikzio politiko bezala.**

Esan dugun bezala, kontziente gara LGTBIfobia bestelako zapalkuntza espezifikoko batzuek zeharkatzen dutela eta horietan arreta jartzea ezinbestekoa dela (klasea, jatorria, adina, eta abar.) Indarkeria jakin hauek beste aldagai batzuk eraginda jarduten dute: klasismoa, arrazismoa, gaitasuneria, elitismoa, ... Uste dugu LGTBIfobiak beste indarkeria hauen logika bera jarraitzen duela eta, noski, LGBT pertsonak beste zapalkuntza horien subjektu izan daitezke, zapalkuntza ardatz ezberdinen arteko elkarreraginetik eratorria delarik. **Beraz, pertsona orok jasaten duen zapalkuntzak edo bizi duen pribilegio egoerak bizitza eta bizitzeko modua baldintzatzen duela baieztatzen dugu, inguruarekin eta gizarteko aktore ezberdinekin duen harremana zehaztuz.**

Maiz, errealitatean ematen diren irakurketetan sinplifikazioan eror gaitzke, hau da, komunitate bereko pertsona ezberdinen baldintzei erreparatuz, egoera pribilegiatuago batean dauden pertsonak soilik ikuskatzera joz, era partzial batean aztertuz. Hau arriskutsua izan daiteke, bata bestearen gainetik kokatzen dugulako eta, beraz, zapalkuntza dinamikan eror gaitzkeelako. **Ikuspegi zurrun honek komunitate heterozentratuak**

LGTBI pertsonen inguruko ideia osatzerakoan eragina du, baita politika publikoak sortzeko momentuan ere, politika horien hartzaile eta subjektu asko ahaztuz. Horregatik uste dugu, LGTBI kolektiboa osatzen duten pertsona guztien ikusgarritasuna bermatzea eta bazterketa saihestea ezinbestekoa dela. Udalak duen erronka hau da: komunitatea bere osotasunean kontuan hartzea eta guztientzat eta guztiakin politika publikoak diseinatzea eta inplementatzea.

Bestalde, LGTBI kontzeptua eztabaidagarria izan daiteken arren, eraikuntza soziala da, beraz, eraikuntza bat den heinean, moldagarria da ere, hau da, eraldatzailea da. Komunitatearen behar eta nahien arabera eralda daiteke. Era estrategikoan erabilita borroka daiteke zapalkuntza, baita politika publikoak benetan eraginkorrak eta komunitatearen beharretan oinarritzen direnak eskatu ere.

Zer da sigla bakoitza?

→ Lesbianak, Gayak eta Bisexualak

Pertsona ez-heterosexualak. Alegia, genero bereko pertsonetikiko erakarrita sentitzen direnak -lesbianak eta gayak- edo genero guztiekiko erakarrita sentitzen direnak -bisexualak-. Talde honetan sartuko ditugu, halaber, kategoria horiekin erabat eroso sentitu gabe ere, horien definitzioarekin bat egin dezaketenak -marikak, bo-llerak eta queer-ak -.

→ Transak

Sexuaren zein generoaren eredu bitar, zurrun eta estatikoa zalantzan jartzen dutenak. Bai jaiotzerakoan esleitu zieten generoarekin bat ez datozenak, bai beren gorputza, genero-identitate edota genero-adierazpenak iraultzeko estrategia politiko zein artistikoak garatzen dituztenak. Era zabalean ulertuta, transexualak, transgeneroak, ez-bitarrak eta trabestiak kontuan hartuko ditugu.

→ Intersexualak

Medikuntzatik, eta ezaugarri sexualei dagokionez, anbiguotzat sailkatuta izan diren pertsonak dira, sexuen bitartasunak zehazten dituen bi gorputzetan klasifikatu ezin diren pertsonak (Calvo, 2012). Hau da, ezaugarri sexual “maskulino” eta “femenino” horien eredu zurrunetik at jaio direnak. Genero bitartasuna zalantzan jartzen duten pertsonak, agerian jarritz sexuen arteko banaketa ez dela hain argia, “maskulino” eta “femenino” kategorietatik harago doan continuum biologiko bat dela ordea.

¹ Lehenik eta behin argitu nahi dugu LGBT siglak erabiliko ditugula lanean zehar, baina esparru anitza dela kontuan hartu nahi dugu, pertsona batzuk etiketa horrekin ordezkatuak ez direlako sentitzen behar bada. LGBTI akronimo bat da eta multzo bati egiten dio erreferentzia. Konglomeratu heterogeneoa da eta zatikatuta aurkezten da, hierkarkiek eta botere-harremanek zeharkatuta.

Komunitatea/ Kolektiboa/ Mugimenduat

Orain arte, LGTBI pertsoneri buruz hitz egin dugu, haien indibidualtasunari erreferentzia eginez. Hala ere, LGTBI pertsonak modu kolektiboan uler daitezke, artikulatuta dauden eraren eta helburu zein eskaera politikoen arabera. Horrela, subjektutasunaren araberrako hiru multzo bereiz ditzakegu.

Komunitatea

LGTBI pertsona guztiek osatutako taldeari egiten dio erreferentzia. Hau da, aurreko puntuan aipatu dugun egitate-multzoa da, ezaugarri sexual espezifiko eta desberdinez osaturikoa. Eta ondorioz, heteroarautik at kokatzen diren subjektuen multzoa; funtzio deskriptibo hutsa duena. Hala ere, ez dute zertan autopertzepzio kolektiborik izan behar, ez dute solaskide gisa parte hartzen inongo espazioetan, hauen artean ez dago inolako lotura politikorik eta ez dute zertan agenda propiorik izan behar. Hori bai, eskubide-subjektuak diren heinean, diseinatutako LGTBI politikek eragin beharko diete.

Kolektiboa

Politikoki helburu politiko zehatz baten inguruan egituratzen den pertsona-taldeari egiten dio erreferentzia, estrategia konkretu eta propio batekin. Kolektibo hori osatzen duten pertsona guztiek

zerbait komunean dute eta horrek zeharkatzen ditu (denak marikoiak dira, denak pertsona LGTBI arrazalatuak dira, denak lesbiana dira, eta abar) . Kolektibo horiek baliozko solaskideak izaten ohi dira erakundeekin, eta, askotan, komunitatearen ordezkari gisa funtzionatzen dute, gai espezifikoetan zein orokorretan. Gainera, beste LGTBI kolektibo batzuekin elkarrizketa jarraian eta artikulatuta daude.

Mugimendua

LGTBI pertsona guztiak ordezkatzeko dituen subjektu kolektiboa osatzen duten kolektibo eta norbanakoen batura da. Mugimendua modu autonomoan agenda eta lehentasunak zehaztuko duena da, baita aldarrikapenerako nazioarteko egunak antolatuko dituen ere.

Zergatik herrietara begira?

Sexu aniztasunari zein LGTBI komunitateari dagokionez, dikotomia oso nabarmena ematen da hiria eta herria (edo bailara) alderatzeko orduan, eta nolabaiteko tentsioa antzematen da. Garrantzitsua iruditzen zaigu identifikatzea tentsio honen jatorria non dagoen.

Herriaren estigma

Hiria eta landa eremua bi elementu kontrajarrri moduan ulertu izan dira baina errealitate sozial partekatua osatzen dute. Bata bestea baitan erreproduzitzen da, eta bata bestea rengandik abiatuta eratzen da, bataren transformazioak mugimendua edo eraldaketa eragin dezake bestean. Baina, hala ere, dominazio-harreman batean oinarritzen dira bi elementuak, hierarkia batean eratu izan direlako historikoki. Bata ikusgarria da (hiria) eta beste ezkutua edo bukolikoa (herria). Hauxe ere ordena sozialaren eta arauaren mekanismo bat da.

Landa eremuan eta hiriaren inguruko diskurtsoek eragin handia jaso dute ideologia modernizatzaileengatik, non hiria garapen, aurrerabide eta gizarte moderno eta zibilizatu bati bide emateko eremua izango litzateke eta herriak atzerakoien itxura hartuko lukeen. Beraz, herriaren baitan imajinario oso sendoa bat sortzea eragiten du honek, irudikatuko duena landa eremua eta

ondoren, herria, sozialki eta ekonomikoki atzeratua, hots; modernizatzeko bidean dagoen eremu bat hain zuzen. Imajinario hau oso sustraiturik sendotu izan da Euskal Herrian.

Gurera ekarrita eta logika hori kontuan izanda, gure imajinarioan **hiria da modernoa (LGTBIa) eta herria da betikoa (heterosexuala).** **Hiria da irekia eta herria da itogarria.** Fikzioa eta narratiba eraikia denez, ez da inolaz ere errealia izan behar. Datuetara begiratzen badugu, eraso LGTBI gehiago zenbatzen dira hirietan herrietan baino.

Industrializazioaren eraginez, enpleguaren aldaketaren eraginez, garraio publikoaren sareen garapenez, biztanleen mugikortasunagatik edota biztanleriaren aldaketa soziologikoaren ondorioz, herriak jada ez daude hain lotuak landa eremuari, hiri bizitzara baizik. Ordiziako egoera, Goierriko herri handia den heinean, marko honetan koka dezakegu. Hori bai, dikotomikoa den paradigma horretatik eraiki da herrien subjektibotasun eta identitateak eta landa eremuan bizi den jendearen estereotipoa ideia horien baitan eratu da. Ordizia ez da salbuespena.

Modernizazioaren nozio hauetatik abiatuta, landa-eremua (herri industrializatua) eta hiri-eremua gizarte-ezaugarri jakin batzuekin identifikatzen ditugu gaur egun. Espazio-eremu horien azterketa partziala, dikotomikoa eta baztertzailerik osatuz. **Finean, herrietan eta, batez ere, landa-eremuan bizi den jendearen inguruan estigma bat sortzen da.**

Herriaren berezitasunak: Sexilioa

Horregatik, lan honetan landa eremuaren espezifikotasunean jarri nahi dugu arreta. Sexilioa edo nahitaezko migrazioa herrien eraikuntza heterosexuala ulertzeko ezinbesteko mekanismoa da. Sexilioari dagokionez, hainbat kontzepziorekin egiten dugu topo, eta ugariak izan daitezke migrazio derrigortura bideratzen dituzten arrazoiak. La Fountain-en aburuz (2005; hemen aipatuta: Zuñiga, 2020) pertsona homosexualak beren jaioteritik migratzeko arrazoiaren artean, homosexualitateari ezartzen dioten izaera ez-naturala ager daiteke, hau da, homosexualak konfinatzen edo kanporatzen saiatzen diren gizarte-neurriak, gizarte kontroleko erakundeetan edo muga errealetan. Politika erreakzionario hauek diskurtso heteroarautu eta LGTBIfoboe-kin lotuta daude, gorputzak kontrolatzeko politikak baitira, materialak zein sinbolikoak. Erreproduzitzen doaz eta disidentzia sexual ororen askatasuna mugatzeko pentsatzen dira. Diskurtso erabat misoginoa, androzentrikoa, patriarkala eta heteroarautua da. Herri txiki infernu handi logikan sostengatzen direnak.

Guzmanen aburuz (1997, hemen aipatuta: Zuñiga, 2020) **sexilioa, heterosexuala ez den identitate edo nortasuna duten pertsonak haien auzo, komunitate edo herrialdetik emigratze-ra bultzatua egotea da, beren sexu identitateagatik jazarpena jasotzeagatik**. Hori bai, sexilioa ez da soilik bazterketa eta jazarpenagatik egiten den ihesaldia. Beraz, ez da traumatikoa izan behar. **Espazioaren bernegoziaketa bat izan daiteke ere, hau da, pribatutasuna, intimitatea eta pertsonaren beharrak errespetatzeko**

asmoarekin, leku bat topatzea, bakoitzak nahi duena, askatasun osoz egiteko aukera topatzea, hain zuzen (Zuñiga, 2020). Herriak ematen ez duen anonimotasun bila egiten den ihesaldia. Nolabaiteko askatasuna bilatzearen apustuagatik. Kasu horietan, ihesaldia herrirako buelta ekar dezake behin askatasuna lortu denean edota herriko dinamikak aldatu direnean.

Testuinguru honetan, beraz, landa eremu edo herrietatik hirira gertatzen den migrazioa ematen da. Hain zuzen ere, diagnostiko honetan Ordizian bizi gabe Ordiziarrek diren pertsonak sartu ditugu laginean; izan ere, beharrezkoa iruditzen zaigu migrazio-prozesu horiek nola gertatu diren aztertzea eta Ordiziako LGTBI komunitateko kide direnen minak, eskariak eta sentimenduak zeintzuk diren jakitea. Jakin nahi dugu zergatik LGTBI pertsonak sexiliatzen diren, zerk bultzatzen dituen herriarekiko loturak behin-betiko haustera edo itzultzera. Era berean, hiritik edo beste landa-eremu batzuetatik migratzen duten LGTBI pertsonentzat Ordizia leku atsegina izan daitekeen aztertu nahi dugu. Hala ez bada, beharrezko neurriak ere bilatu nahi ditugu.

Municipalismo ez heterosexuala

Hala ere, herrietan bizi-proiektu anitzak garatzen dira. Begirada dikotomiko eta urbanozentrista horren ondorioz, ordea, bere jakintzak eta narraitibak baliogabetu ditugu, ikusgaitzak bihurtuz. Gure ustez, herriak ez dira hiriak baino heterosexuagoak, ezta horietan baino fobia gutxiago dagoenik. Tamalez, hiriko tresnekin aztertu ditugula eta, askotan, bere politika publikoak begirada horrekin abian ipini ditugu. Akats handia.

Uste dugu, esparru ez instituzionalak alde batera utzita, aurrerapauso garrantzitsuak eman ditzaketela udal gobernuek. Hiriaren testuingurua izan daiteke, oro har, eremu irekiago bat LGTBI pertsonentzat hainbat arrazoiengatik (hiriak ematen duen anonimotasuna, aisialdi aukera zabalagoa, etab), herria batzuetan itogarriagoa, kasuak kasu. Baina irekitasunerantz jotzeko aukera falta baten aurrean, instituzioek lan handiagoa egin dezakete LGTBI pertsonen bizitzak hobetzeko edo bazterkeria ez sufritzeko laguntza eskainiz, batez ere, mugimendu LGTBI errotuta eta indartsua ez dagoenean.

Kontuan izan behar dugu herriek hurbiltasun handiagoa dutela instituzio eta herritarraren artean, eta, horri esker, haien beharrak identifikatu eta hurbileko udal-politika eraginkorrak eta eraldatzaileak diseina daitezke modu errazagoan. Horregatik, politika publiko batzuk herri osorazuzendua garatzea beharrezkoa dela ikusten dugu, heterosexuak erregimen politiko gisa ulertu eta zalantzan jartzeko baldintzak sortuko dituztenak eta hartara bideratuak.

Esan dugun bezala, ez da egia hiriak LGTBI pertsonentzat herriak baino atseginagoak direnik. Egia den gauza bakarra da bizigarritasuna eta segurtasuna apustu eta konpromiso politiko eta instituzionalen bidez eraikitzen diren elementuak direla. Herriak, askotan, LGTBI pertsonen aurkako lekuak izatera jotzeak, inertzia heterosexuaren normalizazioarekin du zerikusia. Apustu disidentekin eraldatu ezin den ezer. Egin dezagun.

Ordizia eta LGTB errealitatea

Ordizia ez da salbuespena aniztasun sexualari dagokionean, eta are gutxiago hainbat eremutatik disidentzia sexuala eta feminismoa pentsamendu eta praktika eraldatzaile gisa lantzen dituzten erreferenteei dagokionean. Horren adierazle dira, N. Iturrioz, A. Iturrioz, J. Iturrioz, A. Txurruka edo A. Iruretagoiena Ordiziarrek, besteak beste. Ordizia, hortaz, herri anitza izateaz gain, kapital sozial, intelektual eta politiko handiko LGTBO herritarrak dituen herria da.

Nahiz eta, sexilioaren atalean aipatu dugun bezala, eta ondorioetan ere ikusiko dugun bezala, sexilioaren fenomenoak herriak aniztasunez husten dituen, Ordiziako kasua hori ote den aurrerago begiztatuko dugu. Baina, azken urteetan zentratuz, argia da nola LGTBI errealitateak eta errealitate horiek ikusarazten lagundu duten politikak egon diren, eta egun, badauden. Goierriko Zubia LGTBI+ taldea eragile aktibo gisa egon da orain dela gutxi arte Goierriko eskualde osoan. Mendiak eta ostadarrak bat egiten zuten Goierriko Zubia LGBTI+ taldearen irudian. 1970eko hamarkadatik aniztasunaren eta sexu askapenaren ikurra baita ostadarra, eta ikur hori bereganatu egin zuten, Goierriko zubia edo ostadarra bera aldarrikatuz. Lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen arloan eskualdean zegoen hut-sunea betetzeko elkartu ziren Goierriko hainbat gazte.

2016ko apirilaren 30ean egin zuten aurkezpen ofiziala, Ordizian, eta taldekideak ezustean harrapatu zituen Goierriko taldeak izan zuen zabalkundeak eta goierritarrek honekiko azaldutako interesa.

Gipuzkoako beste eskualde batzuekin alderatuta, kolektibo honen aburuz, (Goierriko Hitza, 2016) eta ikusgarritasunari dagokionez, garrantzitsutzat zeukaten horrelako talde bat egotea. Horixe izan zen, hain zuzen ere, taldearen helburu nagusietako bat: gaia ikusaraztea eta goierritarrak LGTBI errealitateez ohartaraztea. Belaunaldi gazteak eta gizartea bera heztea zen Goierriko Zubia-aren beste helburuetako bat. Taldeak tailerrak edo hitzaldiak antolatu zituzten (ikastetxeetan, gaztetxeetan, Goierriko udalerrietako bestelako zerbitzuetan,...). baita LGTBI herritarren arteko harremanak sustatzeko hainbat ekintza ere.

Azken urteetan, gainera, apustu berezia egin da LGTBI politika publikoak herrian txertatzeko. Eta ekintza anitzen bidez, ikusgarritasunaren gaia aitzaki, LGTBI errealitateekin loturiko hainbat aferra landu izan dira. 2016an, esaterako, udalak, eraso sexistaren aurkako kanpainan, LGTBI fobiaren aurkako mezua barnebiltzen zuten afitxak herriko taberna eta bestelako lekuetan banatu ziren.

2020an, aldiz, LGTB+ komunitatearen diagnostikoaren eraginak herrian hitzaldia antolatu zuten; Zuriñe Rodriguez, Errenteriako LGTB herritarren errealitatearen diagnostikoaren egilearekin, eta Iñaki Queralt, Errenteriako LGTB politiken zinegotziarekin. COVID-19aren itxialdiaren erdian izan zenez, online formatuan burututako solasaldia izan zen, Adur Ezenarro, Ordiziako alkateak gidatuta. 2021ean, COVID-19 pandemiaren ondoriozko itxialdia behin bukatuta, udalak egitasmo zein ekintza zehatzak antolatu zituen.

Horietako egitasmo esanguratsua Udaberria Transloratzen zikloa izan zen. Zinegoak festibalearen filmak, Kattalin Minerren MOIO liburuaren eta Transitos liburuaren aurkezpena Ekaitz Gokoetxea eta Aingeru Mayorrekin, haur transexualen inguruko tailerra Aitzole Aranetaren eskutik,

Transakziorako ipuinak Apika taldearen eskutik, Transformatzen dokumentalaren lanketa eskoletan eta abar.

Urte berean, beste bi ekintza zehatz ere burutu ziren. Batetik, ekainaren 28an, nazioarteko harrotasunaren eguna zela eta, herrian ortzadarraren koloreekin zebrabidea margotu zen, Harrotasunaren zebrabidea deiturikoa. Bestetik, Hernaniko azken 50 urteetako LGBT+ memoria historikoaren ikerketatik eratorritako Noiz bukatzen da armairua? liburuaren aurkezpena, Egoitz A. Albenizek eta Ibai Fresnedok idatzita.

Hortaz, ziur gaude, LGTBI politika publikoen hari muturretik jarraituz, eskuartean duzuen diagnostiko honek, orain arte egindako ekintza-motetz gain, herriko LGTBI herritarren bizi baldintzak eta, ondorioz, bizitza bizigarriagoak bermatzeko oinarriak ezarriko dituela.



ONDORIO NAGUSIAK

Hurrengo orrietan diagnostikoaren ondorio nagusiak aurkituko dituzue. Pixkanaka-pixkanaka, horietako bakoitza aurkezten joango dugu, eta, aldi berean, udalak egoera hobetzeko har ditzakeen zenbait neurri proposatuko ditugu. Horrela bost ildo tematikoetan banatu ditugu ondorio hauek:

Gure Ordizia, gure idiosinkrasia:

Atal honetan Ordizian dauden tradizioak, erritmoak eta kulturak duten indarrak hausnartuko dugu eta guzti hori erregimen heterosexuala nola indartzen duen aztertuko dugu. Aldi berean, sor daitzkeen arrakalak ere ikusaraziko ditugu.

Armairuaren inertzia vr. erreferenteak:

Atal honetan, besteak beste, herriaren inertziak armairu baten beharra indartzen duela ondorioztatuko dugu. Horregatik, armairuak nola operatzen duen ikusiko dugu, bai Ordizian zein Ordiziatik kanpo, baita armairu horrekin apurtzeko zer aukera dauden ere. Aldi berean, komunitateak erreferenteak eta ikusgarritasuna behar dituzte existitzeko eta bizitzeko. Atal honetan, herriko LGTBI pertsonen erreferenteak aztertuko ditugu, eta haiekin harremanak nola eraikitzen dituzten ere ikusiko dugu. Ikusarazteko beharra eta horren zailtasuna ere landuko ditugu.

Fobiak eta erasoak:

Hala ere, existitzeak eta arauz kanpo jarduteak, erasotua izateko aukera dakar, batetik, eta era guztietako fobiak esnatzen ditu, bestetik. Herriaren idiosinkrasia eta armairuaren inertziak zerikusitua handia dute Ordiziako LGTBI pertsonen segurtasun faltarekin. Hori da atal honetan aztertuko duguna.

Sexilioa:

Horrek guztiak pertsona batzuegan migratzeko beharra sortzen du (nahiz eta beste batzuek Ordizian bizitzearen aldeko apustua egiten jarraitzen duten). Horregatik, Ordizian fenomeno hau errepikakorra delako, atal propio bat sortzea erabaki dugu. Bertan, behartutako migrazioen arrazoi zehatzak aztertuko dira, baita eragindako kaltea konpontzeko formulak ere.

Sareak:

Sareek bizirauteko eta bizitza duinak eraikitzeke aukerak ematen digute, bai sare informalak bai formalak. Atal honetan, horien kalitatea ikusiko dugu, eta ahaleginak non jarri behar ditugun aztertuko dugu.

Gure Ordizia, gure idiosinkrasia

Ordizia herri tradizionala da, edo, behintzat horren sentsazioa dute elkarrizketatuek, baina zer da tradizioa? Aldatzen ez diren ohiturak eta erritoak dira, belaunaldi- belaunaldi transmititzen direnak norma sozialak bihurtu arte. Aldaezinak diren normak dira. Halere, guk ez dugu tradizionaltasuna elementu estatiko gisa ulertzen, herrien nolakotasun eta dinamika sozialen arabera aldatzen den faktore bat bezala bazik. Tradizioak eta erritoak, zaindu beharreko herri baten ondare dira ere. Baina ondare honek, egunerokoan gailentzen diren dinamika kultural zehatz batzuk birsortzen eta iruditeria kolektiboa elikatzen arduratzeaz gain, hauetatik eratorritako hainbat praktika betikotzen ditu. Ordiziaren kasuan lau aldagai identifikatu ditugu non tradizioaren pisua oztopo bat bihurtzen den.

- 1 Herriko festak eta aisialdi guneak
- 2 Espazio publikoaren maskulinizazioa
- 3 Familia eta koadrila
- 4 Kapitalidadearen sentsazioa

Herriko festak eta aisialdi guneak

Herriko festak, sozializatorako eremu diren heinean, diagnostiko honetan ikusi duguna da nola hainbat jardueren bitartez heteroaraua indartzen den, eta nolabaiteko konfigurazio sozial heteropatriarkala ezartzen den. Horren adierazle ditugu, urtero, festetan ospatzen diren Santaneroen esku-dantza zein goizaldeko danborrada edo matutina. Hauek, Ordiziako herriko identitatearen parte

izateak tradizioaren inguruan subjektibazio jakin bat sortzen laguntzen dute, zailago jartzen duena tradiziotik edo arautik kanpo kokatzen diren gorputzei leku bat ematearena. **Beraz, herriko festak adierazpen LGTBIfobikoen katalizatzailea izan daitezke:**

“Herriko festetan, adibidez, ospatzen da egun bat “matutina” edo danborrada matutina. Eta koadrilak tematikoki mozorrotzen dia...Eta hor inoiz topatzen dezula koadrilaren bat...Ba orain dela bizpahiru urte batzuk atera ziren “disfrazados del Orgullo”...Barregarri utziz...Ba pelukekin, purpurina, banderaz, lumarren kontua,...” (B002)

Santaneroak eremu heterosexualaren adierazpen bezala bizitzen dira, nahiz eta familia ere anitzak dauden, gailentzen den iruditegia familia hetero nuklearrena da. Beraz, **horrelako tradizioak asimilaziorako elementuak izan daitezke**, heteroarautik kanpo dauden pertsonentzat edo harremanentzat praktika biolentoak bihurtuz:

“Aquí hay lo de los Santaneros, una tradición que los que se casan en el año salen en Santa Ana a bailar. Y cuando nos casamos y nos enviaron esa carta para salir. Y en aquel momento decidimos no salir. ¿Por qué? Pues en mi caso era más joven, llevaba aquí viviendo nada, la gente no me conocía nada,...[...] Igual hoy en día lo hubiera hecho, sobre todo por el tema de la visibilidad.” (G003)

Horregatik, garrantzitsua da tradizioaren, errituen eta festen subjektua zein izaten ohi den azpimarratzea eta ikusaraztea. Halaber, jakina, gainontzeko subjektu batzuek ez dute lekurik (emakumeek, LGTBI pertsonak, migratzaileek...), eta, halakorik badute ere, bizi dezaketen indarkeria ikusaraztea.

“Egia da ikusten duzula, festetan edo...Beti dagoela zerbait. Ari naiz pentsatzen igual gehienbat emakumeen kontrako mobidetan e! Baina berdinak dira beti gauza horiek.” (L001)

Tradizioak eta errituak, eta ondorioz festak, zaindu beharreko ondarea izateaz gain, gutxinaka-gutxinaka berrikusi eta eraldatu beharreko elementu kulturalak ere badira. Indarkeria sinbolikoa betikotu ez dezaten. Baina, batez ere, imajinario kolektiboan hain errotuta dauden hainbat jarrera eta portaera heterosexista zuzeneko indarkeria bihurtu ez daitezten. Hortik, **festetako espazioak eta hauetako errepresentazioak berresanahitu behar direla ondorioztatzen dugu.**

“Berdin dit, gauza oso simple bat, emakumeen festa bat, Ordizin posible izango litzateke emakumeen festa bat? nun desirak igual aldatu egingo diren...edo posible izango litzateke e...bollerak eta maritxuen ez naiz ari esaten ya espazio transfeminista bat, osea izango litzateke posible holako elkargune bat? gauza asko aldatu beharko lirateke” (B001)

Herriko festak egun zehatz batzuetan ospatzen dira baina parranda eta aisialdia, ordea, gure egunerokotasunaren parte inportante bat dira. Horiek ere balore kontserbadorez eta heterozentratuaz gurutzatuta daudela antzeman dugu. Gure kultura heterosexista orokorrak berak espazio publikoa ziprztintzen du:

“Esango nuke giroa beti izan dala oso heterosexuala, marko horietan harremantzeko eta mugitzeko...Marko hegemonikoa...Betiko tematikak, betiko konbertsazioak, betiko hori...Ba...beti futbolez...Hau da oso marko normatiboa.” (B002)

“Heteroaraua hain oinarrian duen herri batek igual inkonzienteki eta beste batzuetan konszienteki, bazerretara ez? e...bideratzen dituzte beste pertsona batzuk edo beste gorputz batzuk ta orduan gauza batzuk kendu egin behar dira eta beste gauza batzuk erdigunean jarri behar dira” (B001)

Heterosexualitatea leku guztietan dagoenez, **elementu sinbolikoak aldatzeko premia handia sumatzen dugu**, LGTBI pertsonak ere espazio pu-

blikoa beraiena ere badela senti dezaten: **➔ LGTBI jaialdi edo ekintza propio eta ez mistoak programatzea lagungarri izan daiteke.**

“Kiroldegian, seinalitikari dagokionean, oraindik ere generoa bereizten da komunetan. [...] Oraindik arrotza egiten zait sinbologia...Nola emakumea agertzen den gonarekin, eta gizonak prakak...Hori bai, horrek txokatu egiten dit.” (L001)

“En Ordizia, aparte del paso de peatones, hay poca señalítica o simbología que sea inclusiva o que haga referencia a la diversidad sexual...[...] (G003)

➔ Jaietan ikusgarritasunarekin lotutako kanpaina espezifikoak abiatzeko beharra ikusten dugu eta egun horietan LGTBI protokoloa aktiboa egon behar da . Nola ez, espazio publikoetan eta jai-eremuetan eskuragarria egon behar da. Jaietako protokoloa diseinatzeko premia ere dagoela ohartu gara, horretarako LGTBI herritarren kolaborazioa sustatuko da.

Espazio publikoa, espazio maskulinoa

Orain arte ikusi dugun bezala, elkarrizketatuek azpimarratu duten gauzetako bat izan da herriaren idiosinkrasia bera eta espazio publikoaren erabilera oso heterosexuala dela, baina, baita maskulinoa ere. Adibidez, batzuek aipamen berezia egin diote gizonak antolatutako kirol ekimenei, izan gaztetxetik antolatua, izan festen egitarauaren barnean egoteagatik, beste ekintza batzuen aurretik lehenetsi izan delako, “beti egin delako”. **Ez dago baldintzarik ez eta bermerik beste izaera bateko jarduerak antolatzeko ere, beste sinbolo eta esanahi sortuko dituztenak.**

“Ordizi oso maskulinoa da, dena dago bideratua gizonkoentzako. Rugbykoek garagardo festa, matutinan ikusten dezu ta dana die baflek eta mutilek...”

...espazioa okupatzen, espazio publikoa... dena muy falocentrista. Boterea beraiek dute” (G012)

“Dare ohitura batzuk oso konkretuk el boxeo. Ematen du tontakeri bat, baina boxeoaaren ekintza hori adibidez orain dela urtek gaztetxetik planteatzen genitun ekintza batzuk gazteentzako inoiz ez ziran onartzen zialako...ez dakit zer, baino boxeoa “ah es que hori betidanik egon da festatan” (G007)

“Gauza da jende askok ez duela Ordiziaz harago ezer ezagutzen. Orduan beraiantzat ba herrikoa ona da, gustora daude...Adibidez, gure etxean neba-arrebetatik Ordizira hobe adaptatu dena nire anaia izan da. Mutil heterosexuala da, beti mutilekin ibilita, futbola gustatzen zaio....Eta bera, ba oso ondo moldatu da Ordiziko ingurura. Baina, aldiz, nere arrebak, nahiz eta heterosexuala izan, estetikoki pixkat hausten du eredu...Eta herritik jun zan.” (G001)

Arautik kanpo kokatzen dena “status quoa” edo ordena soziala apurtzen duela ondorioztatzen da eta, beraz, hura seinalatu, modu batera edo bestera. Sexilioaren aldagaiarekin harreman zuzena duen beste ardatz bat Ordizia ez dela leku segurua eta ezta jasangarria ere heteroarautik kanpo kokatzen diren pertsonak euren sexualitatea eta identitatea ezagutu edota bizi ahal izateko.

Beste alde batetik, Ordizian dauden espazioak, sinboloak edota esanahiak oro har oso maskulinoak eta heterosexualak dira, bilakatzen dira (eta dituzte) leku ez seguruak eta deserosoak. Espazio publikoaren erabilpena esate baterako, edo ohitura errotoak betikotzeko dagoen egoskorkeria, azken ideia hau herriaren status quo eta idiosinkraziarekin lotura eginez. **Ez dago lekurik beste borroka edo identitate batzuetarako, nahiz eta oso herri politizatua eta, ustez, irekia den.**

“Ni hemen adibidez Gazte Asanbladan ibilitakoa naiz eta hemen Ordizin bai izan dela luzez maskuli-

nizatua eta zentzu hortan...[...] Aparte de dinamika hoiek maskulinoak dila, bastante mozten dula jende berria edo desberdina gerturatzea desde luego.” (B002)

➔ **Mugimendu feministarekin eta emakumeen etxearekin batera, emakumeek kalea okupatzeko ekintza-plan bat diseinatzea (jarduerak, ekintzak, bilerak), espazioaren okupazio maskulinoa iraultzen laguntzeko eta, emakumeek modu desiragarria erabili ahal izateko izan daiteke inplementatzeko beste proposamen bat.**

Koadrila familia da

Jakina denez, kuadrilla Euskal Herri osoan indar handiz jarduten duen erakundea da. Laguntza eta sostengu ematen duen taldea da, eta familia-sentsazioa sortzeko aukera ematen du. Gure kuadrilla gure familia da. Hala ere, badakigu kuadrilla kontrolatzeko eta diziplinatzeko erakundea izan daiteke, eta, kasu askotan, kideak homogeneizatzen behartzen dituela, eta arautik ateratzen direnak bertatik kanporatzen ditu.

Alde horretatik, ikusi dugu **Ordizian kuadrilla beste lurralde batzuetan baino indartsuago jarduten duen erakundea dela**, eta bertan genero-bereizketak bizirik dirauela. Horrek gizonen eta emakumeen arteko bizikidetzaren parekideagoa egin ez ezik, LGTBI pertsonen sozializazioa ere asko baldintzatzen du. Horregatik, ➔ **kuadrilletan normalizatuta dauden indarkeriazko dinamikak identifikatzea ezinbestekoa da.**

“Ni txikia nintzenean herrian sekulako ohitura zegoen nesken kuadrillak egotearena eta mutilen koadrilak egotearena. Eta neskak eta mutilak soilik elkarrekin ibiltzen dira kuadrilla eguna denean.” (G001)

“Tabernetan oso bitxia da nola edozeinetara sart-

zen zaren eta gizonak gizonekin edo emakumeak emakumeekin dauden ikustea. Hori bai, gizonen bat emakume kuadrillaren baten ikusita edo alderantziz, beti pentsatzen duzu: bua hori seguro marikoia edo lesbiana dela!” (G001)

“Batez ere taberna giroa, edo kontestua, dana oso heteroa, dana oso normatiboa eta koadriletako plan sozialak halako sistema zurrun baten dia, ba kuadrillarekin taberna batean zeozer hartzea. Hortaz, hortik at ez dago gauza handirik, ez dago espaziorik.” (B002)

Kuadrillak mugiezinak dirudite, bizitza osorako dira, txiki-txikitatik zurekin doazenak. Hala ere, identifikatu dugu helduaroan **orientazio sexua-laren bereko kuadrillak sortzen direla** eta hori positiboa da kuadrilla tradizionalak LGTBI pertsonengan duen kontrola arintzeko.

Kapitalidade faltsua

“Ordizia da handiena eta irekiena”. Horixe da Ordiziak Goierri duen zentralitatearen inguruan dagoen topikoa. Hau da, **Ordizia bailarako erdigune neurgikoa delaren ideia dago** eta, zintzoak izanik, baieztapen horrek badu errealitatez zer bait. Hau da, alboko beste herritarrentzako bere bizitzaren zati bat egiteko leku gisa funtzionatzen baitu. Adibidez, gazte asko joaten dira Ordiziara institutura edo Ordizian gozatzen dute asteburuko aisialdiaz.

Horrek sortzen du kapitalidadearen sentsazio faltsu bat, zeharka Ordizia alboko herriak baino irekiagoa dela sentiarazten duena. Hala ere, elkarriketatuen artean ikusten dugu sentsazio hori ez datorrela bat errealitatearekin. Nahiz eta herri ertaina izan, “txiki” gelditzen zaie gehienei:

“Ordizia Gabiria edo Ataunekin konparatuta handiagoa da, hau da, ez da herri txikia. Baina mentalida-

dea bera da!” (G001)

“Inguruko herri txikietan egon daitekeen kontrol moduko hori, mundu guztiak elkar ezagutzen duelako, Baina Ordizian ere badago hori. Nik ez dut ikusten herri txiki edo ertainen arteko diferentzia askorik zentzu hortan.” (G002)

“No creo que todas las personas tengan la misma oportunidad y la libertad de vivir su vida plenamente. Porque Ordizia viene de una cultura muy cerrada y por mucho que sacamos pecho diciendo que somos muy echados palante, mucha gente no ve más allá. En plan: `no conozco, no sé, mmm. Lo que me dicen, lo que escucho. Viruela del mono, gays. Hombreres, masculinos. Gays, sidosos.’ Yo lo he escuchado aquí en Ordizia en conversaciones.” (G003)

Kapitalidade-sentsazio faltsu hori, ordea, oso elementu positiboa izan daiteke beste sexu-eredu batzuk sustatzeko. Ildo horretan, hemen politika publikoen erronketako bat dagoela identifikatzen dugu: Ordiziak bailaran duen zentralitatea aprobetxatu behar da LGTBI pertsonentzako leku segurua eta atsegin izateko. **Ordizia leku erreferentzial erabakigarria izan daiteke, bai sexualitatearen ikuspegi tradizionala gauzatzeko, bai eredu (sexual) askatzaileagoa eskaintzeko.** Laburbilduz, Ordiziak babesleku moduko bat izan behar du LGTBI pertsonentzat. ➔ **Horretarako, Ordiziako Udalak LGTBI arloko politika publiko bateratuak diseinatzeko bailarako beste udal batzuekin interkooperatzeko espazioak lidera ditzake.**

Laburbilduz, tradizioa ez da neutroa. Herri baten idiosinkrasia eraikitzen duten arau sozialak ere ez dira neutroak. Hor erronka garrantzitsu bat daukagu. Tradizio eta arau horiek heterosexualak eta patriarkalak izan ez daitezen lan egiten behar dugu. Hori bai, pixkanaka egin behar da, eta aldatetarik iritsi behar dira, baina herritarrek ulertu eta bermatu behar dituzte, iristen direnean erre-

nean erresistentziarik eta gatazkarik sor ez dezaten. Heteroarauak izaera zentrifugo eta, aldi berean, zentripetua duelaren premisarekin lan egin behar da. Zentrifugoa, kontzeptuak berak dioen bezala, heteroarautik edo erdigunetik kanporatzea, irtetea edo ihes egitea eragiten duelako; honek arautzen duena ez betetzeagatik edo honek sortzen duen indarkeriatik zure burua babestu nahi izateagatik. Eta zentripetua, ordea, armairuan egote hutsak eta baztertutako errealitatea izateak arauarenganako edo erdigunearenganako erakarpena eta indarra eragiten duelako. Horregatik justuki, ikus dezakegu nola herriaren idiosinkrasiak berak, arautik at kokatzen dituen LGTBI pertsona hurak, asimilazio-prozesu batean murgiltzeko edo eredu heterosexuala jarraitzeko tendentzian sartzeko bestelako alternatibarik ez dien eskaintzen.

“Baino (LGTB herritarren) bisibilizazio hoi lortu da jarraitzen degulako ere eredu heterosexuala e! [...] Osea no somos nada disruptivas...no molestamos a nadie, no incomodamos a nadie, porque llevamos la misma puta vida que un heterosexual, copia-pegas” (G0011)

Armairuaren inertzia vr.

Erreferenteak

Herriaren inertziak armairu baten beharra indartzen du. Gainera, komunitateak erreferenteak eta ikusgarritasuna behar dituzte existitzeko eta bizitzeko. Erreferenteak eta armairuak daude presente Ordizian, elkarbizitzen dute eta egunerokoa zailtzen edo errezten dute.

Aurpegia erakutsi gabe eta herritik kanpo

Tradizioak, erritoak eta idiosinkrasia kontserbadoreak ez du bat ere erraz jartzen bizitza normalizatu bat izatea; eta, hare gutxiago, ikusgarria izatea. Zentsu honetan, diagnostikoan parte hartu dutenek, ligatzeko edo jendea ezagutzeko espazio birtualak edo App-ak erabiltzen dituztela azpimarratu dute. Ez da kontua arraroa. Azken urteetan horrelako aplikazioak izugarri handitu dira eta bere erabilera oso ohikoa da nonahi. Hori bai, Ordiziaren kasuan antzeman duguna da hauetan armairua gailentzen dela batik bat. Hau da, **aplikazioek erabiltzen dituzte, bai, baina normalean beti Ordiziatik kanpo; eta, Ordizian erabiltzen direnean; norbanakoen identitatea ezkututzen da.**

“En Grindr verías a dos personas con cara, el resto no, el resto sin cabeza, y sabes que son de Ordizia.” (G003)

“Behin taberna batean nengoela, mutil bat bere neska-lagunarekin besarkatuta ikusi nuen. Eta tipo horrek aurreko egunean niri Grindr-etik idatzi zidan!” (G001)

“Txorakeria dirudi baino inoiz ez det Grindr-a herrin ireki, sinpleki ez nadin agertu eta...kanpon bai, baino hemen ez adibidez.” (B002)

Armairutik ezin atera

LGTBI errealitatearen inguruko ustezko diskurtso aurrerakoi, positibo eta inklusioa gure kaleetan oso presente egon arren, idiosinkrasia heterosexualak gailentzen da eta egunero aurki ditzakegun indarkeria sinbolikoek kontrakoa pentsarazten digute. Armairutik ezin atera da horietako bat eta ondorio latzak dakar bakoitzaren autopertzepzioan, nortasunean eta sexualitatea orokorrean bizitzeko askatasunean. Alegia, LGTBI pertsonak norbere buruari eragindako in-

darkeria sinbolikoa litzateke; beren identitateak, nahiak edo praktikak ukatuz, hauek ezkutatu edota heteroaruari leial izatearen plantak eginenez, besteak beste. Zentsu honetan, LGTBI pertsona askori oso zaila egiten zaio heteroaraura ez egokitzearen ondoriozko barne-gatazkak saihestea eta norbere buruarekiko areriotasuna ekiditea.

Esan dugun bezala LGTBI fobia barneratu hau estuki dihoa lotuta armairua deritzogun fenomenoarekin, zeina LGBT pertsonen nortasunaren edo interesen errepresioari eta ezkutaketari erreferentzia egiten dion metafora bat den. Espazio sinboliko bat non, heteroarauaren mesedetan, estigmatizatutako LGBTI identitateak, desirak eta praktikak hesitu, kontrolatu eta ezkutatu egiten diren. Horregatik, armairuan egotea esamoldeak norberaren nortasuna, jokabidea edota sexu-orientazioa isilpean gorde behar dela esan nahi du; honek dakarren ikusezintasunarekin. Aldiz, armairutik atera esamoldea norbera den bezalakoa ikusaraztearen sinonimoa litzateke.

Hau esanda, elkarrizketatu batzuk adierazi dituden bezala, armairuaren inertziaz, argiki ondoriozta dezakegu, Ordizian armairuan dagoen jendeak ezkutuan bizi duela bere sexualitatea:

“Ez, Ordizia ez da herri irekia! Ufff...keba keba. Izan ere, gizon homosexualen kasuan, 10etatik 8 armairuan daude. Eta armairutik kanpo daudenak kanpora joan dira.” (G001)

“Nire burua modu kontziente batean ezkutatu det, azken finean kanpon (herritik at) errezago. Inklusio janzkeragatikan ba errezago zitzaidan...Ba ez dezula hainbeste pentsatzen eta gero hemen, herrin bertan, gehio kortatzen naizela.” (B002)

“Esango nuke jende asko armairuan dagoela oraindik. Batzuk ezagutzen ditut eta azkenean estatistikoki jende gehio egon behar da.[...] Ordizia gainera

ez da erabat irekia, jendea armairuan dagoela iruditzen zaitelako oraindik. Nik ez dut arazorik eduki. Baina bai dagoela nolabaiteko beldurra.” (G002)

“Badaukat lagun bat Drag (queen) dela, eta Ordizian ez zaio ezta okurritu ere egiten kaletik hola ibiltzea. Bilbon bai! (G001)

“Nik herrian bizpahiru LGTB pertsona ezagutzen ditut soilik. [...] Badaude bizpahiru diala hola publikoak eta gero badaude beste asko armairun diala.” (B002)

“En mi caso, he vivido en distintos pueblos y ciudades y...Al venir a Ordizia a vivir, vuelves al armario ¡totalmente! Claro, yo llegué aquí de Canarias y volví un poquito al armario.” (G003)

➔ **Ikusgarritasunarekin lotutako kanpaina espezifikoko abiatzea interesgarria izan daiteke eta herriko agente estrategikoei (udal-langileei, poliziei, tabernariei, komertzio jabeiei, eta abar) sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko derrigorrezko prestakuntza espezifikoko emateak egoera hobetzen lagunduko digu.**

Armairuaren heldutasuna

Burutu ditugun elkarrizketetan egiaztatu ahal izan dugu, armairuak, batez ere, pertsona helduenei eragiten diela. Izan ere, pertsona horietako askok nahiago izan dute Ordiziara ez itzultzea, gaztaroan sexiliatu eta gero. ➔ **Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu LGTBI adinekoen ikusgarritasuna modu berezitan lantzea, auzo elkarteetan edo pentsionisten guneetan inplementatua behar dira politika publiko hauek.**

Gainera, egiaztatu ahal izan dugu armairuak indar handiagoz funtzionatzen duela gay gizonen kasuan. Mugimendu feministaren indarrak eta emakume lesbiana, bisexual eta trans askok bertan aurkitu duten babes-aterkiak seguruago egin ahal izan dute armairutik irteteko prozesua.

“Esango nuke LGTB+ kolektiboko jende heldua ez detela asko ezagutzen; batzuk armairuan daudelako eta beste batzuk ospa egin dutelako.” (L001)

“Una persona de una edad más madura que no haya salido del armario, porque no ha tenido una red de amigos en los cuales apoyarse, seguro que es un paisaje en Grindr.” (G003)

“Armairuan jarraitzearena bai lotzen detela beste belaunaldiekin, hau da, jende helduagorekin. 40 urtetik aurrera duten horiek dira gehienbat...Nik adinarenekin lotzen det.” (G002)

Testigantza guzti hauek irakurrita, ondoriozta dezakegu nola armairuan egotea, diskretuki edo pribatutasunarekin bizitzea baino askoz gehiago den, bizitzako arlo garrantzitsuenetan (familia, lagunak, lana...) aldaketak eragiten dituen ezkutuko ereduak baita. Alegia, nor zaren ezagutzea, onartzea eta sozializatzea ahalbidetzen ez duen traba sinbolikoa. Gainera, armairuaren fenomeno bi ahoko arma gisa ere erabiltzen dela ikusi dugu, azpikeriaz LGBTIfobiarekin lotutako beste modu bortitz bat erabiltzeko balio baitezake. Hau da, norbaiten sexualitatea agerian uzteko erabil daiteke, honi min emateko eta LGBTIfobikoaren ondoriozko indarkeria bizi dezan.

“DBH-ko 2. mailan, armairutik atera nintzen, bueno, atera ninduten! (G001)

Horrek adierazten digu, armairutik irtetea borondatezkoa izan behar den arren, LGBT pertsona bati buruzko susmoa ere zabaldu ohi dela, edo hari buruzko informazioa lau haizetara baimenik gabe partekatzen dela. Hortxe dugu erronka: Ordizia seguru bat eraiki behar da non, batetik, armairuan bizitzea beharrezko ez den eta, bigarrenik, armairutik ateratzea prozesu mingarria ez bihurtzeko.

Erreferenteak: kanpoan eta negatiboak

Erreferenteak beharrezkoak dira. LGTBI pertsonak hazi egin dira, kasu askotan, erreferenterik gabe, eta haien bila egon dira bizitza osoan. Hori bai, erreferente horiek askotarikoak izan daitezke: negatiboak, positiboak, ezagunak, pertsona ospetsuak, anonimoak, hurbilekoak, urrutikoak, etab. Gure kasuan, erreferenteak ez dira era zurrun batean aurkeztu. Hau da, elkarrizketatuetako askok kuadrillan pertsona lesbianak eta gay-ak dituzte baina hauek askotan ez dira erreferentzia nahikotzat sentitzen. Alegia, “gaude” eta “existitzen gara”-ren sentsazioa badago baina horiek ez dira nahikoak erreferenteak bilakatzeko. Beraz figura erreferenteen falta azpimarragarria da. Ikusgarritasun ezarekin, herriaren idiosinkrasiarekin eta molde heteroarautuak apurtzearen zailtasunarekin lotzen dugu erreferenteen falta.

Gainera, erreferente izan zitezkeen asko Ordiziatik kanpo bizi dira gaur egun, herri mailan erreferente gisa kontuan hartu ezin dituzten arren, Ordizia uztera ausartu diren pertsona gisa bai. Horietako asko ospetsuak dira, erreferenteak Euskal Herriko LGTBI mugimenduan, bere lanagatik proiektio publikoa dutelako edo kirolari ospetsuak direlako. ➔ **Erreferente horiek Ordiziara ekartzea, eurekin lanketa egitea eta gertuko erreferenteak bihurtzea lagungarria izan daiteke erreferentzialitate erreala eta hurbil bat lortze aldera.**

“Nire kasuan erreferenterik izan ez nulako (...) bada desertu bat eta ordun zure existentzia nola planteatu ere ez jakitea ez dakazulako ispilurik” (T001)

“Hemen ez zegoen erreferentziarik, osea... adoleszentzian.(...) Ordizin egon zan taberna bat hor kuadrila bat, jendea, horietatik mutilek gehienek hilda dare VIH, zeatik izan zan garai hure sida ta hasi zan... hor bazegoen bikote bat e...beraiek zeukaten arropa

denda bat...zian bi mutil, herri mailan oso ezaunek zian, eta zian oso maitatuak osea oso...” (G007)

“Erreferente baliotsuak ezta bat, gehiago eredu eta markajes de hau zu ezin zea izan, Ordizin erreferente izan dienak ez die ordizin bizi... osea sexilio total. Una forma de sobrevivir” (G009)

Badago alderdi bat arreta deitu diguna: elkarrizketatuetako batzuek azpimarratu dute zer ez zuten izan behar edo nolakoak ez ziren izan behar, izateko forma hori zigortua izaten delako herrian. Eta nola kontraerreferentzia bat osatzen joaten den. Alegia, **erreferenteak egotekotan erreferente horiek modu negatiboan funtzionatu dute.**

“Kontraerreferente, ez det marimatxo izan nahi, ez det futbolan jolastu nahi, ez det futbol ekipoko kidea izan nahi, gizarteak edo herriak zigortzen ditulako eta nik ez det zigortua izan nahi” (G009)

“Ikusgarritasun eza eskolan, irakasle edo gurason aldetik, laguntzarik ez. O eras la marimatxo del grupo edo beti mutilekin eta genero adierazpena maskulinoagoa, hori zan katxatik ateratzen den zerbait eta horregatik zigortua izaten zen, horrek zuri markatzen zizun eta jartzen ziñen toki baten nun esaten zenun ni ezin naiz hori izan, ze gaizki ikusita dau eta ni zigortua izango naiz ere” (G009)

Gutarrak, herrikoak

Positiboa eta gertukoa izan daitekeen erreferente bat identifikatu dugu. Ordiziako LGTBI komunitatearen artean modu positiboan funtzionatzen du alkateak komunitatearen parte izatea. Sexilioa, aurrerago ikusiko dugun bezala, etengabe presente dago gazteengan, beraz, herrian autoritate handiena duen figurak bere bizi-proiektua bertan izateaz gain, erantzukizun-kargu bat duela ikusteak herria bizigarria delaren aukera erreala sortzen du.

“Udalak azken urteotan gauza asko egin ditu.” (L001)

“Egia da egungo alkateak, beste alkateekin konparatuta, gauza gehiago egin dituela” (G001)

“Gai hauen ikusgarritasuna instituzio aldetik, udalaren aldetik ere, egon da aldaketa bat. Bai egon da bisibilizazio bat lehen ez zegoena.[...] Uste dut inplikazio bat egon dela, ekintza batzuk egon direla. Anbizioa adieraziz.” (G002)

Zentsu honetan, positiboa litzateke ➔ **pertsona giltzarriak eta herriaren egunerokotasunarekin identifika daitezkeenak ikusarazteko kanpainak abiatzea.** LGTBI pertsonak ez dira soilik sexiliatu zirenak, geratu zirenak ere badira. Alkatea, arkitektoa, okina, maistra, etab. ➔ **Aurreko garai edo belaunaldietan herrian egon diren LGTBI mugarri, kultura eta pertsonen transmisioa egitearen beharra ere identifikatu dugu.**

“Garrantzitsua iruditzen zait irakasleak armairutik ateratzea eskolan.” (L001)

“Irakasleek beren burua erreferentetzat ikusaraztea inportantea da. Nik nire garaian ez nituen erreferente asko, eta uste dut horrek laguntzen duela. [...] Nik uste dut nire garaian eskolan bazegoela jendea bere burua heteronormatik kanpo kokatzen zuena, baino oso gutxi zegoen. Eta nik ustet, erreferente gutxi daukazunen, ba zurekin asimilatu dezakezun bat asimilatzea zaila dala, eta azkenean beti behar dituzu erreferenteak. Ez bakarrik sexualitatean, kulturean, familian,...Eta irakasleen artean nik uste dut oinarritzkoa dela.” (G002)

“Nik dakitela ez da transmisioa bereziki lantzen. Ez, ez dago horren transmisiorik.” (G002)

“Ez dago transmisiorik, nik ez daukat ideiarik ez...” (L001)

“Pelukerian nengoela esan zidaten: jo ba orain dela

urte batzuk bazegoen transexual bat herrian, baina gero kanpora joan zen...Eta nere neba-arrebekin hitz egiten, ba esaten didate: el maricón del pueblo en aquella época era nosequien.” (G001)

“Nik dakidala behintzat ez da egiten lan hori. Niri etzait ezer ailegatu.” (B002)

Misoginia nonahi

Erreferenteak gutxi dira, baina direnean, norma-lean gizon homosexualak dira. Alegia, emakume lesbianak, bisexualak eta transak ikusezinak dira:

“Ordizian gero eta gehiago, baino orokorrean lesbianak ikusezinagoak dira.” (L001)

“Lehen zeuden bereziki bi bollera, orain batek izango ditu 70 urte bueltan eta besteak 60 ta piko, eta hor kamarera bezela hasi nintzanean etorri ziren egun batean eta...nere iskiñera etorri ziran eta...batek esan zidan: “aquí entendemos todas no?” ta ordun nik esan nion “ya era hora, por supuesto que entendemos” osea ta oso polita izan zan ze nik esan nien osea os llevo esperando desde los 16 eta be-raiek: “ya baina gu ari gera hemen itxaroten aber” argi zuten” (G009)

LGTBI komunitatean, beraz, ikuspegi androzentrikoa, sexista eta misoginoa dago eta honen ondorioz emakume lesbianak, bisexualak eta transak beren sexualitateari loturiko behar zehatzak edo pairatzen dituzten indarkeria – egoera espezifikoak gutxiesteko edo mesprezatzeko joera gailentzen da. **👉 Zentsu honetan, abian ipintzen diren kanpaina publikoetan emakume lesbianen eta pertsona transek irudiak protagonikoak izatea gomendatzen da.**

“Gu orain hasi gara berriz ere Ordiziatik ibiltzen, lehen beste herrietara juten ginen. Eske nire koadrilan lesbiana asko daude ere, eta esango nuke, gizon homosexualok arazo gehiago ditugula emakume lesbianak baino; behintzat Ordizin. A ber, arazoak dituzte e! Baina ez hainbeste” (G001)

Fobiak eta erasoak

Zorionez, eta betiere elkarrizketatuen hitzak kontuan izanda, eredu heterozentratu hegemonikoa aldatzen doa, eta; azken urteotan, Ordizian urrats garrantzitsuak eman dira herrian itzalean egon den aberastasun eta aniztasun sexuala agerian utzi eta aitortu nahian. Hala ere, diagnostiko honen helburua, Ordizia, gertuko etorkizunean LGTBI pertsonentzat herri bizigarria bilakatuko duten udal-politika eta neurri zehatzak ahalbidetzea dela. Eta horretarako, egun LGTBI herritarrek bizi dituzten erasoak identifikatzea lehentasunezko afera bat da.

Beraz, heteroarautik at kokatzen diren sexu-orientazioei edo genero-identitateei eragiten dien fobian eta ondoriozko erasoetan zentratu gara elkarrizketetan nahiz eta jakin badakigun fobiak ere pertsona heterosexualei aplikagarriak diren. Hau da, honek, sexu – orientazioaz haratago, us-tezko maskulinitate eta feminitate perfektuaren gabezia baitu ardatz, maskulinoa eta femeninoa izatearen eraikuntza sozialak berak dakarrena. Alegia, honen guztiaren jatorri sakona heterosexismoan dagoela esan genezake.

Hitzak eta kontrol soziala

Ordizian gailentzen den eraso mota nagusia hitzekoa da. Aurrerago ikusiko dugu nola eraso mota hau, gainera, maila eta forma desberdinetan badago ere, batzuetan, eraso zuzen bezala agertzen den eta, beste batzuetan, genero bakoitzak berarengandik espero diren genero-rolak eta genero-adierazpenak zuzentzeko mekanismo gisa agertzen den.

“En Ordizia considero que la violencia se da de una manera más verbal que física. Y además (la verbal), un poquito como de espaldas. Osea tú notas que te están diciendo algo, no a la cara, pero si de repente sueltan algo y lo oigo hacen como ups!...” (G003)

Gainera, herri txiki edo ertainetan oso ohikoa den fenomeno/autoeraso bat ere agertzen da Ordizian: **LGTBI pertsonak beren egunerokoan sentitzen duten kontrol-sentimendua.** Nahiz eta fenomeno hori herritar guztiek parteka dezaketen, LGTBI pertsonen kasuan areagotu egiten da. Pertsona zisheterosexualeen artean gertatzen diren praktikak normaltzat hartzen diren espazioetan, edozein LGTBI pertsona bere burua ikusarazten edo jendaurrean afekturen bat erakusten saiatzen denean, hauen inguruan, begiradak, komentarioak, seinalatzeak eta, are gehiago, etiketatzeak aktibatzen direla. Horregatik, justuki, kontrol sentimendua eroso moto bat bezala identifikatzen dugu.

“LGTB pertsona batek ezin du tabernetan lasai ligatu...Lasai behintzat ez nuke esango. Ni adibidez, inkomodo sentituko nintzake hemen inorrek in ligatzen saiatzen jakingo nukeelako begiratzen ai diala, epaitzen ai diala edo komentatzen ai diala...Herri bat denez, heteroak direnean (ligatzen dutenak) jendea badabil fiskalizatzen ba LGTB direnean gehio desde luego. Gainera ez direla espazioak suertatzen hortako.” (B002)

“Ez nuke esango jarrera atzerakoirik daudela. [...] Arazoa da gero nolabait praktikan. Igual ez dakit nor batekin liatu dela eta gero ba txismorreo guttik...O sikiera, sentitzen deun presio sozial hori. Ke igual gero ez da hainbesterako baino gutxinez hor dao fiskalizazio hori...” (B002)

Gizentasuna arerio. Lesbianek zertarako?

Erasoak LGTBI komunitateko kide guztiek pairatzen dituzte, hori bai, erasotzaileak gehien bat

gizonak izaten dira. Gizonen kasuan, ordea, luma-fobia da batik bat gailentzen den eraso, gizontasun normatiboaren diziplinamendua bilatzen da honen bitartez:

“Azkeneko eraso duela pare bat aste izan da, juer-gan, Ordizian, batzuk esan zidaten `apartate maricón`. Denak gizonak ziren eta esango nuke gehienetan edo beti erasotzaileak gizonak direla. [...] Beste baten, beste herri batean bizi zen nire lige bat asteburu pasa etorri zen, eta parrandan geundela, aurrekoaren berdina baina bioi.” (G001)

“Nitzako gizonekin loturiko zerbait da, badagoela jendea estankatua dagoela, ez doala aurrera... Pixkat Crogmanon. [...] Nik badakit eraso berbalak egon direla hemen, ordun, amorrua ematen dit. Kalean eta koadrilan bertan.” (L001)

“Pixkat ikusi detenagatik, badagoela jendea, mutilak, uste dutela gay izateagatik zarela “menos hombre”, eztakit nola esplikat. Gutxiago izango balira bezela edo genero maskulinoarekiko traizio moduko bat egingo balute bezela. Zerbait daukate hor...” (L001)

Lesbianen kasuan eraso lesbofoboak ikusezinak bilakatzen dira, baina, nola ez egon badaude. Berriz ere, misoginia topatzen dugu. Begirada heteropatriarkalaren logikapean, emakume-kategoria bera plazer maskulinoa lortzeko objektutzat ulertzen da. Eta elkarrizketatuek aitortuta, gizon heterosexualeen iruditeria erotiko eta pornografi-koak eraginda, eraso mota batzuk ildo horretan dihoazte.

“Ligatzerako orduan, errez ikusten det gainera tipa batekin liatzen egotea taberna batean eta tipo baten partetik komentarioren bat jasotzea. Nik bikotea eduki detenean hemen festetan ez dut inoiz arazorik izan muxu bat emateko, baina bai sentitzen dituzula begiradak.” (L001)

“Erasoena...Badauzkat lagun mutilak pasa zaienak.

Mutilei ikusiet...Eztakit okerrago ikusten den baino nere lagun gay bati ikusiet.[...] Esango nuke gainera jarrera femeninoagoak dituzten mutilekin gehiago gertatzen dela...Edo behintzat nik ikusi detena e!” (L001)

“Gu orain hasi gara berriz ere Ordiziatik ibiltzen, lehen beste herrietara juten ginen. Eske nire koadrilan lesbiana asko daude ere, eta esango nuke, gizon homosexualek arazo gehiago ditugula emakume lesbianak baino; behintzat Ordizin. A ber, arazoak dituzte e! Baino ez hainbeste” (G001)

Zentsu honetan, ere, genero-adierazpenean oinarritutako lesbianenganako diskriminazioa edo erasoak identifikatu dugu. Zeinak emakume lesbianen identitatearen aurkako aurreiritziak, jarrerak, sentimenduak eta abusuak barne hartzen dituen. Eraso bikoitza euren.

“Nik ezagutzen dut lagun baten alaba lesbiana dela. Eta batzuetan ez du ondo pasatzen...Marimacho eta holakoak esaten dizkiotelako. [...] Eta nik pentsatu nahi nuen belaunaldi berriekin gauza batzuk aldatuko zirela, baina ez.” (L001)

➔ **Maskulinitate eredu lantzeko programazio eta plan berezia burutzea da urgentziatzko neurria.**

Eskola: Gune segurua?

Sistematikoki, elkarrizketatuek eraso gehien jasanduten lekua eskola dela diote, eta horrek izugarri markatu ditu bere bizi-proiektuak. Egia da, hala ere, alor honetan belaunaldi aldaketa bat identifikatu dugula eta Ordiziako eskoletan sexu aniztasunean egiten den lana fruituak ematen ari da. ➔ **Eskoletan programa pedagogikoen aldeko apustua egiteak epe luzearako fruituak ekarriko ditu. Egiten ari denari segimendua ematea eta kontsolidatzea da gomendatzen den apustu estrategikoa: transexualitatearen gaia eskoletan**

lantzea zein indarkeria matxista prebenitzeko udal-programa integrala garatzea.

*“Ikaskide batekin beti oso harreman ona nuen. Eta atzetik gauza asko esaten zizkioten niri buruz: `cuidao, no vaya a ser que te lo vaya a pegar la homosexualidad´... Gauzak esan bai, baina inoiz aurpegi-
ra, beti atzetik eta taldean” (G001)*

“Sobre todo agresiones verbales...En el instituto por ejemplo...Comentarios cuando pasas por ahí...aunque sean una microagresión, se oyen muchos comentarios. Y yo tengo una edad, pero igual quien tenga 13, 16 o 18 años no va a pasar de ellos. Y van a pensar, mi referente es esa mariquita mala, esa loca, esa noseque. Eso aquí en Ordizia se sigue escuchando...Y eso al final...” (G003)

*“Gimnasiako ikasgaian, ni ez nintzen eroso sentitzen gainerako mutilekin dutxatzen. Eta nik ustet be-
raiek ezta ere. Baina bueno, irakasleari komentatu nion [...] Eta irakasleak esan zidan: eske nik nota jarri behar det eta hori notaren parte da.” (G001)*

“Eskolan maskulinoagoa izateak gauzak asko errazten ditu eta femeninoagoa izateak asko zailtzen ditu; momentu hortan behintzat bai. Bazeuden femeninoak zirenak (mutilak) eta bueno ba, haietaz asko hitz egiten zan. Baina egia esan, hitz egin, más por el cotilleo o por el morbo que kritika bat bezela.” (G002)

“Kirol munduan, eta batik bat, eskola-kirolean, askotan arazoa gurasoak direla. Zenbait guraso. [...] Lehiakortasunarekin lotuta, baina ez dago soilik lehiakortasunarekin lotuta baizik eta oso maskulino den patroi batekin. Ez bazaude patroi hortan matxakatu egiten zaitue.” (G002)

Errugbia: Oasia akaso?

Kirola da LGTBIfobia ematen den beste gune pribilegiatua. Jakina da Ordizian kirolari loturiko kultura eta elkartegintza oso garrantzitsua dela. Eta, toki askotan nagusi den futbolaz gain, garrantzi berezia hartzen du herri honetan errugbiak.

lido horretatik, deigarria iruditu zaigu hitzezko eraso homofoboak ohikoagoak izaten direla futbolearen. Izan ere, ikuspegi globaletik begiratuta, futbola garrantzi handiko kirola da, eta, gainera, maskulinitate toxikoaren ereduarekin oso lotuta dago, gizonezkoen lehiakortasuna eta gizonezkoen korporatibismoa oinarri duelarik. Bestalde, errugbia, oso maskulinoa zein maskulinizatua dela uler daitekeen arren, izaera inklusiboagoa eta osasuntsuagoa duela identifikatzen dute elkarrizketatuek.

“Nik uste dut Ordizian rugby-a beti izan dela inklusiboagoa. [...] Eztakit, uste dut futbolearen beti egon direla indarrean patroi horiek (matxistak) eta beti entzun izan direla gehio irain homofoboak. Publikoan entzuten dituzula. Eta askotan `maricón´ eta holakoak...” (G002)

“Futboleko espazioak eztakit baina errugbikoak behintzat ez dira izan neretzat espazio biolentoak ibiltzeko, eztakit...Hein baten itxura...A ber, espazio hauek heterosexuak, maskulinoak edo halako giroa ematen dana...Baina bastante kontrastatzen dala giro herrikoi baten bidez ematen delako. Eztakit gero alderauta beste lekutan ibili izan naizen errugbi ekipotan bai izan dela nahiko giro maskulino txungo nazkante bat. Eta hemen gutxinez, nik bizi izan detenagatik bai dela giro...gutxinez aguntatzeko...`bastante asumible!’” (B002)

➔ **Kirola da Ordizian gune pribilegiatua aniztasun sexuala lantzeko. Eskola – kiroltako entrenatzaileak aniztasun sexuarekin formatzea, maskulinitate alternatiboa kirolaren bitartez lantzea edo kirol lehiaketa mistoak sustatzea agertu diren proposamen batzuk izan dira. Udal instalazioetako komun eta aldagela ez binarioak sortu eta egokitzea ere interesgarria izan daiteke.**

Azkenik, espazio publikoan, tabernetan, ikastetxeetan, kirol-eremuan eta bestelako espazioetan ematen diren hitzezko erasoez eta askotariko diskriminazioez gain, ondoriozta dezakegu azken

urteotan **LGTBI herritarren artean eraso fisiko zuzenak ez daudela gehien identifikaturikoen artean.** Hala ere, horrek ez du esan nahi eraso fisikoak ez daudenik. Hauek eraso gisa identifikatzeko tresna falta egon baitaiteke. Baita hauek salatzeke tresna eta ahalduntze falta ere.

Hala ere, herriaren idiosinkrasiari berriro erreferentzia eginez, erasoaren (batez ere fisikoaren) inguruko kontzientziarioari, politikoki zuzena den diskurtso baten presentziari eta lehen aipatutako herri txiki eta ertainetan dagoen presio sozialaren fenomenoari esker; badira kuantitatiboki eraso fisikoak geldiarazi ditzaketen elementuak.

*“Ordizian (eraso fisikoa eragin dezakeen) erasotzaile bat egonez gero, igual pixkat frenatuko dio herri batean bizitzeak...En plan: `Me van a tachar de no sé qué’. Gainera, hori da kontua, esan nahiet..Nik bada-
kit Ordizian jende asko homofoboa dela, baino hala direlako. Eta igual hori pixkat makillatu egiten dute, badakitelako egiten ari direna ya pixkanaka gizar-
tean gaizki ikusia dagoela eta igual pixkat frenatu iten die.” (G001)*

Atal honekin amaitzeko, azpimarratu nahi genuke elkarrizketatu guztiek, LGTBIfobikoa eraso mota guztiekin amaitu ahal izateko neurri gisa, herritar guztien heziketan jarri dutela azpimarra. Beste maskulinitate-eredu batzuetan transmisioan arreza berezia jarriz.

“Herritarrekin orokorrean ere pedagogia egingo nuke. Baina nire pertzepzioa da mutilen artean are eta beharrezkoa dela.” (L001)

➔ **LGTBI protokolo bereziak eratu behar dira eta horiei lotuta formazio eta sentsibilizazio saioak eskaintzea herriko eragileei: elkarteei, tabernetari eta komertzioei.**

Sexilioa eta erreparazioa

Ordiziako pertsona batzuek migratzeko beharra sentitu dute. Beste batzuk Ordizian geratu dira eta Ordiziara bizitzera ere hainbat etorri dira.

Banoa! Buelatzeko?

Elkarrizketatu guztiek azpimarratzen dute herritik ateratzeko beharra. Baina ez dute guztiek maila berdinean neurtzen. Nolabaiteko hiru soslai ezberdin identifikatu ditugu sexilioa edo nahitaezko migrazioa lantzerako momentuan.

Batetik, herritik ateratzea guztiz beharrezkoa sentitzen duten pertsonak bizi proiektu bat erai-ki ahal izateko, edota era bizigarriago batean bizi ahal izateko. Ordizian baldintzak ez direlako ematen eta nolabaiteko menderakuntza batean bizitzera bultzatzen zaituelako.

Bestetik, badago beste soslai bat, beharrezkoa ikusten duena herritik ateratzea bere sexualitatean eta identitatean esperimendatzeko eta beste giro batzuk ezagutzeko, Ordizian ezinezkoa dela azpimarratzen dutelako, eta gero herrira itzultzen direnak.

Eta azkenik, Ordiziatik kanpo atera direnak armairutik edo ikusgarritasun handiagoarekin ibili direnak eta gero Ordiziara itzuli direnak. Azken multzo honetatik ikusteke dago ea Ordizian finkatuko ote duten haien bizitokia edo Ordiziatik kanpo izango ote den.

Hemendik atera daiteken ondorioetako batzuk dira, alde batetik, Ordizia ez dela leku segurua eta

jasangarria heteroarautik kanpo kokatzen diren pertsonak euren sexualitatea eta identitatea ezagutu edota bizi ahal izateko. Beste alde batetik, Ordizian dauden eremuak oro har oso maskulinoak eta heterosexuak direla, bilakatzen dira (eta dituzte) leku ez seguruak eta deserosoak. Espazio publikoaren erabilpena esate baterako, edo ohitura errotuak betikotzeko dagoen egoskorke-ria, azken ideia hau herriaren status quo eta idio-sinkrasiarekin lotura eginez.

“Nik donostin...(...) sentitzen deten askatasuna em... ez dakit harreman ireki bat eukitzeko, pertsona batekin baino gehiagorekin egoteko, ibiltzen naizen zirkuluetan mugitzeko...eta txiste txarrak egiteko e... hori ez da existitzen ordizin baina ni de palo, ni de palo, emm... eta hori pues ez dakit, ezagutzen ditudan lesbiana bikoteak eta elkarrekin bizi direnak pues dute bizitza bat super asimilatua, dira bat gehiago, orduan, baldintzak aske bizitzeko? ba igual politizatua ez dagoen jendearentzat bai ze igual bai ahalbidetzen da beraiek nahi duten bizi proiektua baldintza normalizatueta aurrera eramanean ahal izatea ez?” (T001)

“Gazte gehienak hemen eroso sentitzen dira, orduan, normalean juten geanak desberdinak garenak gara” (G001)

“¿Porque la gente se va de aquí? Pues porque por muy abierto que se vea Ordizia por mucho que no tal...[...] Hay una tendencia de ir hacia los pueblos o ciudades más grandes. [...] Creo que mucha gente se va por su sexualidad de Ordizia.” (G003)

“Ni pertsona sexiliatua kontsideratzen naiz, em... literalmente egon zen momentu bat nire bizitzan non ezin nun praktikamente ordizira jun ze kuadrilatik bota ninduten, familiakin ez nun familiarekin hitz egiten osea izan zen mobida bat, ez det uste ordiziko jendea kontziente denik hau existitzen denik, ez dakit ze iritzi dakadan e..., uste det behar bat dela pertona askorentzat eta... ez det uste kasualitate denik ere euskal herriko lgtb mugimenduan super erreferente izan den medeak taldeko hiru kide ordiziarak izatea eta hiruek sexilia-

tuak, ez det uste kasualitate denik, nik ordiziko ez dakit koiuntura ezagututa pertsona politizatuentzat beharrezkoa ikusten det sexilioa, em... baina hori ez det uste herrian jendea kontziente denik, igual gehiago belaunaldi zaharretan, baina oso jende zaharra, baina hori ez det uste kontzientzia bat dagoenik errealitate horrekiko” (T001)

“Es que txikie gelditzen zaizu, eske hala da, ordizin bueno bai atera zaitezke baina batzutan hau argi eta garbi pues yo prefiero un bar de ambiente porque dantza ittezu y no te estan mirando, claramente. A ver esateizut, ez gea ezkututzen pero... pues eso no te puedes poner a perrear enplan como a ti te gustaria ze...pues eso, arraroa da hemen beraientzat. Orduan azkenen ze esatezu pues me voy a Donosti al Daba Daba, bai aber somos rebaños, eske azkenen (...) badaude momentu batzuk nun behar dezun sentirte donde hay iguales” (G010)

“Donostian lan egiten dut eta Ordizia bada niretzat “ciudad dormitorio” pixkat. Baina bai, badakit haruntza juten banaiz, behintzat, lesbiana bezela uste det hobeto egongo naizela.” (L001)

“Ez dut ezagutzen bere orientazioagatik jun diren horien artean herrira bueltatu danik, ez.” (G002)

“Ez, ez, ez, ez...’Yo no me quedo!’ Bffff...aber, alde batetik bai, zeren uste dut jendea gelditu beharko litzatekeela. Ze klaro, jendea joan egiten bada, bertako jendea ez da ohitzen holako gauzak ikusten. Baina, bestetik, homosexual bezala, urteak daramatzat hemen nazkatuta, eta badaukat ateratzeko gogoia beste gauza batzuk ezagutzeko. Beste giro bat ezagutzeko. Ezagutzen ditut kasuak, joan direnak, eta itzuli egin direnak. Baina ya nagusi izanda.” (G001)

➔ Sexiliatu diren horiengana hurbiltzea eta zergatiak ezagutzea ezinbesteko neurri bat da. Ondoren neurriak hartu beharko dira, justuki, sexilioaren prozesua ez egonkortzeko. LGTBI memoriari buruzko lanketek eta hauen sozializatzeko lagunduko digu ere, sexilioa nola den eta izan den ezagutzeko.

Ordiziatik ez da soilik jendea joaten, alegia, Ordiziara ere LGTBI pertsonak bizitzera etortzen dira. Ezagutzen ditugu? Arreta ona ematen diegu? Hortxe identifikatu dugu beste erronka bat. ➔ **LGTBI herritarrei ongi etorria ematen dieten kartelak herriko komertzioetan eta udalean jar daitezke; baita udalaren diru-laguntza edo zerbitzu jakin batzuk jasotzeko diskriminazio positiboan oinarrituriko neurriak txertatu ere. Modu honetan, LGTBI jendea gurera erakar dezakegu.**

Sareak eta harrera

Orain arte, heteroarauak LGBT pertsonengan eragiten dituen egoera desberdinei erreparatu diegu, eta hauek guztiak azaltzeko helduleku desberdinak topatu ditugu. Baina gure elkarrizketatuei ere galdetu nahi izan diegu zer nolako sareak garatzen dituzten, baita hauek nahikoak diren ere. Berdinen arteko sozializatorako espazioetan azpimarra jarritz.

Ondorioz, hemen, bi aldagai identifikatu dugu testigantzetan. Batetik, berdinen artean sarea sortzearen beharra, jende berria ezagutuz eta horien arteko sinergiak eraikiz. Eta bestetik, LGTBI komunitatearen beraren artikulazio kolektiboa; alegia, sigla guztiak subjektu-politiko bilakatzeko beharrezkoak diren baldintzak.

Lehenengo aldagaitik tiraka, diagnostiko horren konstanteetako bat aurkitzen dugu: herriaren idiosinkrasiak berak eragindako itotze-sentsazioa

“Nire sozializazio gehiena kanpon egin det eta zaila egiten zait zerk eragin dun hortan edo...Baina bai kanpon topatu nitula herriko kontestu zurrun baten topatzen ez nituen gauza edo kontestu batzuk. [...] Hori neurtzea konplikatua egiten zait. Baina hein handi baten, ustet...Ez erabaki kontziente bezela, baina denborakin bai konturatzen zeala gustorago bizi naizela kanpon...Herrira bueltau eta herrin itota bezela sentitu...” (B002)

“Herri txikia da eta azkenean zailagoa delako jende berria ezagutzea. Herriaren tamainagatik.” (G002)

Horri gehitu behar zaio LGTBI pertsonen ez dutela espazio komunik elkar ezagutzeko, elkarri eragiteko, esperientziak partekatzeko edo eredu zishe-

teroaraututik kanpoko harremanak eraikitzeko. Non elkarrekiko zaintza, konfiantza eta babes berma daitezzen.

“Yo en el pueblo conozco en total a unas 6-7 personas LGTB. Y toda esa gente por ejemplo no va a Zinegoak. [...] No hay una vida en común, no hay un nexo de unión. Y yo lo hecho en falta. [...] Y aquí, además, mis amigos todos son heteros.” (G003)

“Nik faltan botatzen det espazioren bat, eztakit...Lehenen bazeren espazio gehio...Eztakit, espazio publiko LGTB jendearentzat gehio, tabernak o...Hala ere, gero esaten det...Baita ondo dao ez egotea denak leku berdinean.” (L001)

“Haría falta un bar de ambiente, pero no por nada, sino porque si vienes de fuera y no conoces a nadie ¿qué haces? Te metes en Grindr y ya está. Osea que o un bar o un lugar de reunión o algo donde podamos conocernos mejor entre nosotros (la gente LGTB de Ordizia). Porque conocer a alguien como tú en este pueblo es imposible.” (G003)

“Una persona de una edad más madura que no haya salido del armario, porque no ha tenido una red de amigos en los cuales apoyarse, seguro que es un paisaje en Grindr.” (G003)

Sareak bai, artikulazioa ere bai

Argi dago elkarrizketatuen artean LGTBI pertsonen artean sareak sortzeko gogo argia dagoela. Baina hortik haratago, subjektu politiko bezala antolatze eta artikulatzeko beharra ere ikusten dute, ez bakarrik euren eskubideak aldarrikatzeko, baizik eta Ordiziako errealitatea eraldatzeko.

“Aurten adibidez, ekainaren 28an, alkatearekin topatu nintzen eta galdetu nion ea zerbait antolatuko zen herrian. Eta esan zidan: ‘ez, ze gero mundu guztia gero Donostiara juten da’...Ba bai, hala da, baino niri gustatuko litzaidake igual Ordizin zeozer egitea. Herriko jendea ikusteko. Osea, nik nere herrin nahi dut atera lesbiana bezala egun hortan. [...] Orain arte

antolatu dena udalak antolatu du. [...] Baina nik bai antolatuko nukeela egun horretan zerbait. Eztakit, herriko jendeak hori ikusteko.” (L001)

“Ni, zeozer egongo balitz, apuntatuko nintzen fijo. Osea bai faltan botatzen det zeozer, ba, eztakit, ez elkarte bat baino zeozer herrin. Urte osoan egingo bazan, ‘la leche’ baino behintzat ekainak 28ko aste hortan, gauzak egin herrin, bisibilidade pixkat eman. Gazte jendea ere esan kolektiboa dagoela... eztakit! Baten batek inizatiba hartzea falta da, ze ustet jendea animatuko zala.” (L001)

“Uste dut hirietan aukera gehiago dagoela LGTB pertsonen arteko artikulazioa edo sarea sortzeko. Espazio horiek sortzeko aukera dagoelako, baita ere fiskalizazio sozial hori ez dalako horren fuertea. Eta anonimotasun horrek ba laguntzen duelako...Norbera zarena espresatzeko eta...” (B002)

Bukatzeko, eta azken iruzkin honi erreparatuz, jar ditzagun ahalegin guztiak LGTBI herritarrek zaintza-sare sendoak gara ditzaten, artikula daitezzen, baina, batez ere, herria bizitzeko leku bizigarri gisa senti dezaten.

PROPOSAMENAK:

- ➔ Festetako espazioak eta hauetako errepresentazioak berresanahitu behar dira
- ➔ LGTBI jaialdi edo ekintza propio eta ez mistoak programatu.
- ➔ Jaietan ikusgarritasunarekin lotutako kanpaina espezifikoak abiatu.
- ➔ Jaietako protokoloa diseinatu eta horretarako LGTBI herritarren kolaborazioa sustatu.
- ➔ Jaietan eta egun berezietan LGTBI protokoloak aktibo egon behar du. Espazio publikoetan eta jai-eremutan eskuragarri egonez.
- ➔ Mugimendu feministarekin eta Emakumeen* Etxearekin batera, emakumeek kalea okupatzeko ekintza-plan bat diseinatzea (jarduerak, ekintzak, bilerak), espazioaren okupazio maskulinoa iraultzen lagunduko duena.
- ➔ Kuadrilletan normalizatuta dauden indarkeriazko dinamikak identifikatu.
- ➔ Udalak LGTBI arloko politika publiko bateratuak diseinatzeko, bailarako beste udal batzuekin interkooperatzeko espazioak lideratu.
- ➔ Ikusgarritasunarekin lotutako kanpaina espezifikoak abiatzea.
- ➔ Herriko agente estrategikoei (udal-langileei, polizia, tabernariei, komertzioetako jabeek, eta abar) sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko derrigorrezko prestakuntza espezifikoak eman.
- ➔ LGTBI adinekoen ikusgarritasuna modu berezitan landu, auzo elkarteetan edo pentsionisten gunetan inplementatu politika publiko hauek.
- ➔ Erreferenteak Ordiziara ekartzea, haiekin lanketa egitea eta gertuko erreferenteak bihurtzea, erreferentzialitate erreal eta hurbil bat lortze aldera.
- ➔ Pertsona giltzarriak eta herriaren egunerokotasunarekin identifika daitezkeenak ikusarazteko kanpainak abiatzea.
- ➔ Aurreko belaunaldietan herrian egon diren LGTBI mugarri, kultura eta pertsonen transmisioa sustatu.
- ➔ Abian ipintzen diren kanpaina publikoetan emakume lesbianen eta pertsona transek irudiak protagonikoak izatea.
- ➔ Maskulinitate eredu(k) lantzeko programazio eta plan berezia burutzea.
- ➔ Eskoletan programa pedagogikoen aldeko apustua egitea. Egiten ari denari jarraipena ematea eta egonkortzea: trans biziaren gaia eskoletan lantzea zein indarkeria matxista prebenitzeko udal-programa integrala garatzea.
- ➔ Eskola-kiroletako entrenatzaileak sexu-aniztasunean trebatzea, maskulinitate alternatiboa kirolaren bitartez lantzea edo kirol-lehiaketa mistoak sustatzea.
- ➔ Udal azpiegituretako komun eta aldagela ez bitarrak sortu eta egokitzea.
- ➔ LGTBI protokolo bereziak eratu eta horiei lotuta formazio eta sentsibilizazio saioak eskaini herriko eragileei: elkarteei, tabernariei eta komertzioei.
- ➔ Sexiliatu diren horiengana hurbildu eta beren zergatiak ezagutu.
- ➔ LGTBI memoriari buruzko lanketak egitea eta hauek sozializatzea.
- ➔ LGTBI herritarrei ongi etorria ematen dieten kartelak herriko komertzioetan eta udalean jartzea.
- ➔ Udalaren diru-laguntza edo zerbitzu jakin batzuk jasotzeko diskriminazio positiboko neurriak txertatzea.

BIBLIOGRAFIA

Azpiazu, J. (2020): Masculinidades y feminismo, Virus, Barcelona

Coll- Planas, G. (2015): Diversidad sexual e identidad de género, Revista GALDE 10

Foucault, M. (1976): Historia de la sexualidad I, Siglo XXI, Madrid

Wittig, M. (2009): El pensamiento heterosexual y otros ensayos, Egales, Madrid

ORDIZIA **TRANS**formatzen

LGTBI udal diagnostikoa

